

**UNIBERTSITATEAREN EREMUAN HONDAKINAK SORTZEKO ORDUAN
PREBENTZIO-KANPAINAREN KONTRATAZIORAKO BALDINTZA TEKNIKOEN
ORRIA**

AURREKARIAK

1.- Kanpainaren jatorria

San Markoseko Mankomunitatea bere kudeaketa-urteetan zehar konpromiso sendoa mantentzen du herritarren ingurumen-kontzientziazio eta –sentsibilizazioarekin Mankomunitatea osatzen duten 10 udalerrietan. Konpromiso hori jarduera desberdinekin egituratu da baina guztiek alderdi komuna izan dute: hondakinen sorrera murriztea, batetik, eta hondakinak jatorrian hobe bereiztea, bestetik, birzikla badaitezke.

Era berean, azken hamarkadan izandako eboluzioari jarraiki, San Markoseko Mankomunitatean hondakinak bereizteko orduan partaidetza-ehunekoak onak izan arren, oraindik asko dago egiteke ingurumen-bikaintasunaren eta garapen iraunkorraren mailarik gorenetera iristeko; izan ere, gizarte guztiarentzat lehen erronka da hondakinen sorreraren goranzko joera alderantzikatzea; ondoren gaikako bilketa sustatu behar da materiaren birziklapen-ehunekoak gehitzeko eta estuki lotuta dago herritarrek jatorrian bereiztearekin. Hori eremu sozioekonomiko guztietan egin behar da.

2.- Kontratuaren xedea

Kontratuaren xede den kanpainak unibertsitatearen eremuan hondakinen sorrera murriztera bideratutako jarduerak bultzatu nahi ditu.

3.- Hartzaileak

Kanpaina Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako unibertsitate-campusen egingo da.

4.- Planteatutako ekintzen deskribapena

Unibertsitatearen eremurako kanpaina

Proposamen honen Euskal Herriko Unibertsitatearen Donostiako unibertsitate-campusen hiri-hondakinak prebenitzeko ekimen praktikoak eta eraginkorrak garatu nahi ditu. Gainera, hondakinen sorrerari dagokionez, 8 eremu daude Donostiako Campusean ostalaritzarekin zerikusia dutenak eta, beraz, hondakinen sortzaile handia da. Ildo horri jarraiki, proposatzen den ekintzak edo ekintzek zona

horri erreparatu beharko diote, hondakina bertan sortzen baita. Sorreran prebentzioaren aldeko ekintzak sustatu beharko dira hiri-hondakinen goranzko sorrera geldiarazteko (*l. eranskina*).

5.- Hizkuntza-irizpideak:

Eskaintzaren hizkuntza-tratamenduak EAEko bi hizkuntza ofizialak integratu beharko ditu, alde batera utzi gabe bakarrik euskara erabiltzea hala eskatzen duten ekintzetan eta taldeekin.

6.- Lanak kontrolatu eta ikuskatzea

Aurkeztutako proposamena esleitu ondoren, esleipendunak hainbat bilera egin beharko ditu San Markoseko Mankomunitateko arduradunekin. Gainera, horiekin informazio-bidea zehaztuko du astero, aurkeztutakoa behar bezala betetzen dela ikuskatzeko.

7.- Gauzatze-epea

4. atalean deskribatutako hiru ekintzak 2009ko abenduaren 30a baino lehen garatuko dira.

I. ERANSKINA: KANPAINA UNIBERTSITATE-EREMURAKO

1.-Aurrekariak

Unibertsitate-campusa bereziki garrantzia duen jarduera-eremua da arrazoi desberdinengatik; besteak beste, planteatutako ekintzen pertsona hartzaile potentzialak azpimarratu behar dira, baita populazio-segmentuaren kontzentrazio esangarria eta hiri-hondakinen sorrera handia ere. Lehenengo arrazoiari erreparatuz, Donostiako EHUren Campusean 12.000 ikasle matrikulatuta daudela aipatzea nahikoa da. Hartzaileen bolumen horri irakasleak, gainerako langileak eta bestelako zerbitzuak erantsi behar zaizkio. Bestalde, etxean hondakinak kudeatzeko orduan biztanleen jarraibideei buruz egindako ikerketa soziologikoen arabera, etxean hondakinen kudeaketan seme-alaben gaitzusteak dago unibertsitate-adinean, bai jatorrian hautatzeko orduan, bai gaikako bilketa-sisteman entregatzeko orduan.

2.- Helburuak Hondakinen prebentzioan gizartearen eremu espezifikoetan jardutea eta kontsumo-jokabideekiko moldatutako jarduerak garatzea. Iraunkortasunaren ikuspegitik hobetu behar dira.

- Unibertsitate-komunitatean jarrera-aldaketa lortu eta horri buruz kontzientziatu eta sentsibilizatzea kontsumo-ohiturei dagokienez, eta, ondorioz, hondakinen sorrerari buruz. Egunerokoak ekintza praktikoak eta errazak aplikatzeko aukera eskainiko da.

3.- Hartzaileak

Unibertsitate-komunitatea oro har hartuta litzateke hondakinen sorrerari buruzko ekintza honen hartzailea. Horren barruan sartzen dira, bai Donostiako EHUren Campusean ikasten ari diren pertsonak, bai atxikitako ostalaritza-zerbitzuak.

4.- Kanpainaren garapena

Proposamenek ondoren aipatzen diren A eta B jarduera ardatzak izan beharko dituzte:

4.A.- OSTALARITZA-ESTABLEZIMENDUAK

Donostiako Campusean 8 ostalaritza-establezimendu daude zerbitzua eskaintzen; guztiek taberna dute eta janariak ematen dituzte. Enpresa pribatu desberdinek kudeatzen dituzte urte zehatzetarako lizitazio-emakiden bidez. Hori unibertsitateak egiten du lehiaketak erabiliz.

4.A-1.- Hartzaileak

Establezimenduen kokapenak honako hauek dira:

- Ikasgelen eraikina
- Zuzenbide Fakultatea
- Kimikako Fakultatea
- Informatikako Fakultatea
- Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea- Psikologiako Fakultatea
- Unibertsitate Eskola Politeknikoa
- Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola
- Irakasleen Unibertsitate Eskola

4.A.2.- Helburuak

Hondakinak sortu eta tratatzeari dagokionez, establezimendu horiek kudeaketa-modu desberdinak dituzte: produktuen eskaintza, hornitzaileak, erabilitako materialak, jatorrian bereiztea... Beraz, azterketa bat egitea proposatzen da bakoitzaren errealitatea ezagutzeko. Ikerketa egin ondoren, eta ekimenaren barruan ere bai, esleipendunak ekintza-plana proposatuko du errefusaren zatiari dagokionez prebentzio- eta murrizte-neurriak inplementatzeko. Helburu nagusia gauzatzeko, hau da, hondakinen sorrera prebenitu, murriztu eta zati desberdinak jatorrian bereizteko baliagarriak izan behar dute.

4.A-3.- Kanpaina garatzeko lan-metodologia

Jarraitu beharreko lan-metodologia establezimendu bakoitzaren egungo errealitatea ezagutzeko oinarrituko litzateke eta hondakinen sorreraren arloan indarrak eta ahuleziak aztertu beharko lirateke. Landa-analisitik abiatuta, proposamena egingo litzakete neurri eraginkorrek. Akordioak egin eta sinatzeko erraztasunak, materialak eta aholkularitza eskainiko dira.

Urrats nagusiak honakoak lirateke:

1. Kanpainan parte hartzen duten ostalaritza-establezimenduetako egungo errealitatea aztertzea. Bakoitzaren diagnostikoa egin eta txostena idaztea.
2. Hondakinen prebentzioa sendotzeko eta zati guztiak jatorrian bereizteko establezimendu bakoitzean jarduera zehatzak aurkeztea. Zatien barruan materia organikoa sartzen da.
3. Onartutako jarduerak garatzeko inplikaturako erakundeen artean konpromiso-hitzarmenak sinatzea.
4. Onartutako neurriak aplikatzea.
5. Jarraipena eta balorazioa.

Aipaturako puntuak kontuan hartuta, proposamenak aurrekontu-partida berezia izan beharko du hitzarmenaren sinadura errazteko. Sinatzen duen erakundearen eskura jarriko dira hitzarmena aplikatzeko bitartekoak eta tresnak.

Proposamena eransgarria izango da, hau da, beste erakundeekin lankidetzan jarduteko aukera aurrez ikusi beharko du, prebentzio-ekintzak egin ditzaten. Horretarako, neurriak ekimen honekiko aplikagarriak edota moldagarriak izango dira.

Azkenik, enpresa esleipendunak bere proposamenean aurrez ikusi beharko du ekimena unibertsitate-komunitatean hedatzea, talde horri moldaturako informazio-euskarriak barne. Era berean, proposamenak berriaren garapena izan beharko du dibulgazioaren alde komunikabide orokorretan eta berezietan.

5.B.- IKASLEAK

Atal honetan berariaz ikasleei bideraturako ekintzak sartzen dira. Xede horrez, konbinatu egingo dira, batetik, hondakin batzuen murrizketa erraztuko duten elementu praktikoak banatzea eta, bestetik, prebentzio-jarduerak egiteko gonbita luzatu eta horren berri ematen duten dibulgazio-euskarriak. Era berean, gaikako bilketen eta beren emaitzen berri emango da eta ez dira baztertuko autokonpostatzeko sistemak (lorategietan konpostatzea, bermikonpostatzea).

Proposamenak euskarri, elementu, objekturen bat izango du. Ohiz erabiltzen dena izango da eta berrerabilpenean oinarritu behar da, hondakinen sorrera saihestuz. Proposatuko den elementuak nahikoa aldakortasuna edukiko du, unibertsitate-

komunitateak erabilitako eremuetan moldatzeko. Erabileraren iragazkortasuna gauzatu ahal izango da.

Aurreko kasuan bezala, proposamenak informazio- eta komunikazio-laguntza izan beharko du unibertsitate-komunitateak praktikan jartzen duela bermatzeko. Xede horrez, proposamenean planteatutako ekintza desberdinak deskribatu eta aurrekontuan sartuko dira aipatutako helburuak egia bihurtzeko eta proposatutako elementuaren edo objektuaren banaketa eraginkorra bermatzeko.